

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### DULANTZIKO UDALA

**Hutsen zuzenketa, 2020-692 iragarkiaren argitalpenean, zeinak hasierako onespena ematen dion zerbitzu publikoak eskaintzearen eta administrazio jarduerak egitearen tasak arautzen dituen zerga ordenantzari, kultura eta kirol zerbitzu eta jarduerari buruzkoari**

Akats baten ondorioz 2020ko martxoaren 9an ALHAOn (28. zk.) 2020-692 iragarkia argitaratu zen, eta 2020ko martxoaren 13an ALHAOn (30. zk.) argitaratu behar zen. Hori dela eta, egun honetan osorik argitaratzen da, eta iragarki horrek ondorioak izango ditu azken honetatik aurrera.

Adeitasunez,

Vitoria-Gasteiz, 2020ko martxoaren 12a

*Idazkaritza Teknikoko eta Herritarrak Atenditzeko Zerbitzuaren burua*  
**DANIEL MARTÍNEZ MONGE**

### DULANTZIKO UDALA

**Hasierako onespena ematea zerbitzu publikoak eskaintzearen eta administrazio jarduerak egitearen tasak arautzen dituen zerga ordenantzari, kultura eta kirol zerbitzu eta jarduerari buruzkoari**

Udalbatzak, 2020ko otsailaren 12an eta martxoaren 11n egindako ohiko bilkuretan, erabaki zuen hasierako onespena ematea zerga ordenantza honen aldaketari:

- Zerbitzu publikoak eskaintzearen eta administrazio jarduerak egitearen tasak arautzen dituen zerga ordenantza, kultura eta kirol zerbitzu eta jarduerari buruzkoa.

Jendaurrean jartzen da interesdunek aukera izan dezaten espedientea aztertu eta egoki jotzen dituzten erreklamazioak aurkezteko hogoita hamar eguneko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera; eta jakinarazten da ezen, erabaki horren aurkako erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin betiko onetsizat joko dela jendaurreko epea igarotakoan.

Dulantzi, 2020ko martxoaren 12a

*Alkatea*  
**JOSEBA KOLDO GARITAGOITIA ODRIA**